

Kultura

L'Atelier dantza eskolak eta La Papa antzerki taldeak musikala estreinatuko dute San Agustinen > 11



Lanera noa... atzerrira

Krisiaren aurrean, goi eta erdi mailako formaziodun gazte askok ikasketak amaitu eta lanera atzerrira joatea erabakitzen dute > 2



DBH Kurutziaga ikastolan

Zatoz gure eskaintza ezagutzera!

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK! OTSAILAREN 3tik 14ra arte



Durangaldea > 3

Anbulantzia medikalizatuaren beharraz ohartarazi du PSE-EEK

Zaldibar > 4

Plan Orokorriari egindako ekarpenak ikusgai daude

Berriz > 7

Merkatariek aukera azoka antolatuko dute asteburuan

Durango > 6

Faustegoienako babeseko etxeen promozioa Bizkaira zabaldu dute

Herririk herri

> DURANGALDEA

Sobera formatuak, lan aukera faltan

Goi eta erdi mailako ikasketak dituzten hainbat gazte atzerrira doaz lan bila, langabeziatik ihesi

> JONE GUENETXEA

Enpresetara ehunka curriculum bidali eta makina bat elkarriketa egin arren, erantzunik ez jasotzea eguneroko ogia izaten da gazte askorentzat. Hezkuntza zikloa amaituta, gehienek goi eta erdi mailako ikasketak dituzte. Eta Euskal Herrian ateak itxita aurkitzeaz nekatuta, atzerrira joatea erabakitzen dute.

Eider Badiola (Iurreta, 26 urte) orain dela urte eta erditik Ingalaterran dago. Une honetan York hirian badago ere, denbora honetan lan eta herri ugari eza-gutu ditu. Ostalaritzan jardun du denbora gehien. Administrazio eta Finantzen Goi Mailako Zikloko praktikak Portsmouth hirian egin zituen, eta horren ostean Britainia Handira itzuli zen. “Ingalaterran lan egoera

hobea da. Ostalaritzan badago lana, batez ere hiri turistikotant. Lan gaitu bat aurkitzea, berriz, zailagoa da”.

Urte eta erdi curriculumak bildatzen ibili eta gero, David Minguezek (Durango, 31 urte) ez zuen birritan pentsatu maletak egin eta Kopenhagera joateko aukera sortu zitzaionean. Lan kontuengatik une honetan Nigerian dagoen arren, bere enpresa daniarra da. Danimarkan negua oso gogorra egiten zaiola aitortu badu ere, bizimodu lasaia dela dio. “Esperientzia pertsonal

Durungaldeari dagokionez, 25 urtetik beherako 399 gazte daude Lanbiden izena emanda

interesgarria da, mundu osoko jendea ezagutzeko aukera duzulako”. Gaineratu duenez, “lan aldetik gustuko dudana lana egiten dut eta baldintzak ezin hobeak dira”. Hala ere, argi dauka Euskal Herrira itzuli gura duela: “Espero dut urte batzuk barru esperientzia honek Euskal Herrian lana topatzen laguntzea, egunen batean etxera bueltatzea baita nire helburua”.

Gazte ugari, Euskal Herriko enpresentzako lan egin arren, atzerrian dituzten lantokietara bidaltzen dituzte formakuntza osatzera. Gorka Olasoren (Durango, 24 urte) kasua da hori. Abadiñoko enpresa batek kontratatuta Alemaniako Haynrode herrian dago joan zen urteko otsailaren 4tik. Hurrengo hila-betea Galesera lekualdatuko dute. Hizkuntza menperatu

gabe joan zen Alemaniara eta komunikazio aldetik hasiera gogorra izan zen: “Traba handiena alemana ez menperatzea izan zen. Online ikastaro batzuetara apuntatu nintzen eta, ahalegin handia eginda, hizkuntza menperatzen hasi nintzen”.

Atzerrira joan zenean, hasierako sasoia gogorra egin zitzaion Olatz Bizkarralegorrari (Durango, 25 urte) ere. Parisko ospitale batean praktikak egin eta gero, bertan geratzea erabaki zuen. Frantzia fisioterapeuten beharra dutela eta, bertan gelditzea erabaki zuen. Ogibide bereko estatuko hainbat lagunekin “familia antzeko bat” sortu du. “2010ean titulua lortu ondoren, Frantziara etortzeko pape-rak egiten hasi nintzen; kostata eta esfortzu handiarekin, azkenean aurtan lortu dut etortzea”.

Hizkuntza ikastera

Atzerrira lan bila joateko eman beharreko lehenengo pausoa bertako hizkuntza ikastea da. Durangoko Hizkuntza Eskolako arduradunek azaldu dutenez, ingelesa ikasi gura duten ikasleen kopurua gorantz doa eten barik. Aleman eta frantses eskolen eskaera handiagoa da behetako mailetan. Euskarak gorengo mailetan ditu ikasle gehien.

Langabezia

Euskal Autonomia Erkidego-ko langabezia datuen arabera, gazteak dira krisi ekonomikoa gehien nabaritu dutenak. 16-24 urte arteko langabetuen tasa EAEn %41,3koa da, tasa orokorra %16,73 denean.

Durungaldeari dagokionez, 25 urtetik beherako 399 gazte daude Lanbiden izena emanda, 2013ko abenduko datuen arabera (218 gizon eta 181 emakume). Europako beste herrialde batzuetan gazteen langabezia tasaren datuak oso bestelakoa dira. Alemanian da baxuena, %7,8.



Eider Badiola. Britainia Handia.



David Minguez. Danimarka eta Nigeria.



Gorka Olaso. Alemania.



Olatz Bizkarralegorra. Frantzia.

> ABADIÑO

“Kudeaketa arduratsua” eskatu diote Bilduk eta EAJk gobernuari

Gobernu taldearen jarrera “immobilista” dela salatu dute oposizio taldeek

> ITSASO ESTEBAN

Udal batzordeetan landu beharreko gaien inguruko informazioa ez dutela behar besteko aurrerapenarekin jasotzen salatu dute Abadiñoko Udaleko Bilduk eta EAJk. Euren ustez, “oposizioak batzordera gaia prestatuta eramatea oztokatzen du” gobernu taldeak. “Eztabaida ekiditeko mota askotako trikimailuak” darabiltzala uste du Bilduk.

Bilduko bost zinegotzien eta jeltzale bien botoekin onartu duten idatzi horren bitartez, lau eskari luzatu dizkiote udal gobernuari: “batzordeetako gai

ordenean sartuta egon daitezela landuko diren gai guztiak”; “gaien inguruko informazioa aurrez jasotzea”; “gai ordenean dauden gaien inguruko erabakiak batzordean bertan hartzea, ez telefonoz edo posta elektronikoz”; eta “udalak batzordean eragiten duten proiektu guztien inguruko informazioa ematea”.

Jose Luis Navarro alkateak iragarri zuen bere taldeak mozioaren kontra bozkatzuko zuela. Bere ustez ere, “oposizioak gobernu taldeak daukan informazioa eduki behar du eskura”. Gobernuak informazioa ezkuta-

tzeko trikimailurik darabilenik gezurtatu egin zuen Navarrok. “Ez dut partekatzen hartu duzun zion alkateak Aitor Azueta Bilduko bozeroaleari.

Bilduren mozioko lau puntuekin bat egiten dutela azaldu, eta alde bozkatu zuten EAJko bi ordezkariak. Hala ere, onarturiko idatzi horrek udal gobernuari egozten dion “oposizioaren lana zailtzeko” borondatea baino, batzordeetan denen partetik “lasaieria” egon dela esan zuen Eneko Etxebarriak: “Denona da erantzukizuna”.

Dopin kontrola zorrotz betearaziko dute San Blaseta-ko idi-probetan

Horrela iragarri du Abadiñoko Udaleko gobernuak

> I.E.

Ohi bezala, sarietako irabazleek garaikurrak otsailaren 10ean jasoko dituzten arren, dirusariak ez dituzte dopin kontrolen emaitzak jakin aurretik banatuko. Aldundiak egiten dizkie dopin kontrolak animaliei, eta Abadiñoko Udalak jakinarazi du proben emaitzak eskuartearen eduki arte ez dutela dirusaririk banatuko.

Jose Luis Navarro alkateak azpimarratu du arauak argi egon behar dutela: “Dopatzen

denak ezin du Abadiñoko idi-probetan irabazi. Badakigu lehiakide gehienek ez dutela dopin erabiltzen, baina nahikoa da idi-uztarri bakar batek dopina agertzea gainontzeko lehiakide guztiei kalte egiteko”.

Aurtengo idi-probetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako 27 idi pare lehiatuko dira. Otsailaren 3an, San Blas egunean hasiko da sari-keta, eta 10ean banatuko dituzte garaikurrak. Guztira 15.125 euro banatuko dituzte San Blaseta-ko idi-proba horietan.

PSE-EE: “Beharrezkoa da anbulantzia medikalizatua jartzea”

Durangon bihotzekoak eman zion gizon bati duela pare bat aste; anbulantzia Zornotzatik etorri zen

> **J.G. / M.O.**

PSE-EEK Durangon anbulantzia medikalizatua ipintzeko deia egin du berriro, eta kasu honetan Iñigo Urkullu lehendakariari egin dio eskaera zuzenean. Izan ere, egoerak berdin jarraitzen du, eta duela pare bat aste izandako gertakari batek aldarri hori indartu du. Durangon kaletik zihoala, bihotzekoak eman zion Arrasateko gizon bati. PSE-EEren arabera, Durangoko oinarritzko anbulantzia une horretan okupatuta zegoenez, Zornotzatik etorri zen beste anbulantzia batek artatu zuen gizona. Baina, gizona hil egin zen. Gertaeraren harira, Durangon anbulantzia medikalizatu bat egoteko beharra dagoela berretsi dute sozialistek: Durangokoaren gisako larrialdietarako baliabideak eskaintzen ditu anbulantzia horrek.

Gaur egun, Durangaldetik hurbilen dagoen anbulantzia medikalizatua Gernikan dago. Urkulluri eskaera idatziz luzatu diote: “Logikak eta gertaera horrek erakusten dute ez dela zentzuzkoa hain zerbitzu urria mantentzea”, dio Pilar Ríos sozialistak. “Lehendakariari berriro ere esan nahi diogu guztiz beharrezkoa dela anbulantzia medikalizatua jartzea”. PSE-EEren ekimenez mozio bat

landu da eskualdeko udaletan, eta bertan anbulantzia medikalizatua ipintzeko leku bat ere proposatzen zuten: Iurretako suhiltzaileen parkea.

Larrialdietako eskaera da

Anbulantzia medikalizatuaren beharra sarritan aldarrikatu dute Landakoko larrialdi zerbitzuko beharginek. Iaz sinadura bilketa egin zuten, tartean eskaera hori zela. Izan ere, horren beharra dagoenean ia 40 minutu itxaron behar izaten dute, Gernikatik Durangorako denbora. Gainera, erizain bat gehiago eskatu zuten, lan karga handitu arren, taldeagaz ez ei zela gauza bera gertatu. Beraz, euren lan baldintzak gaixoei eragiten diela ohartarazi zuten. Osakidetzak ez ditu eskaera horiek bete, eta behargin batzuei espedientea zabaldu zien.

Datozen egunetan larrialdi zerbitzuko espazioa handituko dute, Ginekologia Saila ambulatorio zaharrera eroan zuten-eta. Baina lantaldeak berdina izaten jarraituko du.

Iurretan, beharginen alde

Beharginei ezarritako espedienteen kontra agertu da Iurretako Udala, aho batez. PSE-EEK aurkeztutako mozioa onartu dute alderdi guztiek.

> **ATXONDO**

Tailerrak eskainiko dituzte gaztetxean, lehenengoz

Agroekologia, Photoshop, masaje eta elektrizitate tailerretan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

> **J.D.**

Atxondoko gaztetxeak lau ikastarotan parte hartzeko aukera eskainiko du lehenengo bider. Hain zuzen, agroekologia, Photoshop, masaje eta elektrizitate tailerrak antolatuko dituzte martxotik aurrera. Izen-ematea gaztetxean egin daiteke otsailean (arratsalde). Ikastaro guztiak doakoak izango dira.

Tailerrak gaztetxeko kideek emango dituzte. Hainbat ogibidetan aditua den jendea dago gazte asanbladan zein gaztetxearen bueltan, eta interesa duten herritarrentzako eskaintza proposa dela diote; herriko eskaintza zabalitzen ere lagunduko dute ikastarook. Tailerrak ahalik eta aberatsenak izan daitezen saiaturiko direla adierazi dute, esaterako, alor bakoitzean aurkitu daitezkeen adituak hitzaldiak eskaintzera gonbidatuta.

Bideo eta film emanaldiak

Agroekologia, Photoshop, masaje eta elektrizitate tailerretaz gainera, udara arte egin zuten eta oso harrera ona izan zuen ekimena berreskuratuko dute otsailetik aurrera gaztetxean: dokumental eta film emanaldiak. Otsailean hasi eta apirila amaitu arte, hilabeteen birritan eta egunetan eskainiko dituzte bideo emanaldi horiek Atxon-

Tailerrak hainbat arlotan adituak diren gaztetxeko kideek eskainiko dituzte, martxotik aurrera

doko gaztetxean. Iazko irailera arteko emanaldiak Elorrioko gaztetxeagaz batera antolatu zituzten, eta jende askok parte hartu zuen.

> **OTXANDIO**

Udaletxean Espainiako bandera ipintzeko agindua salatzeko ekimenak prestatu dituzte

“Herriaren nahia errespetatzen ez duen inposaketa bat” dela aldarrikatzeko, gaia gizarteratzen dabil herritar talde bat; ekimen nagusia otsailaren 9an egingo dute

> **JOSEBA DERTEANO**

Auzitegiaren epaiaren arabera, otsailaren 10a da udaletxearen kanpoaldean eta barrualdean Espainiako bandera ipintzeko azken eguna. Agindua bete ezik, udala eta alkatea isunez zein inhabilitazioz zigortuko dituztela jakinarazi diete. Egoera horren aurrean, herritar talde

bat batu egin da gaia kalera ateratzeko, euren ustez ez delako herriaren borondatea errespetatu, eta inposaketa bat delako.

Azken hilabeteko asteburuetan hainbat ekimen egin dituzte eta asteburu honetan ere egingo dituzte. Bariku arratsaldean eta domeka eguerdiko poteoan herritarrei inposaketa-

ren kontrako kartelak eramatea proposatuko diete. Era berean, asteburuan, informazio panelak ipiniko dituzte Artekalen, agindua ez betetzeak zer ondorio ekar ditzakeen azaltzeko.

Ekimen nagusia otsailaren 9 goizean egingo dute. Udaletxeko arkupean plaka bat ipiniko dute, herriaren borondatea ez dela errespetatu gogoratuko duena. Ondoren, herriko elkarte askok ekimenagaz bat egingo dute: euskal nortasuna aldarrikatu eta bere ofizialtasuna lortzeko arloz arlo dauden zailtasunak plazaratuko dituzte. Esaterako, Vulcano futbol taldeak euskal selekzioa aldarrikatuko du. Gainera, barikutik domekara balkoietan ikurrina ipintzeko deia egin dute. Ez duenak Kementsu elkartean lortu ditzake.



Udaletxearen kanpoaldean eta barrualdean ipini behar da bandera. J.Fernandez

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK

“Enpresa, ekintzaile eta ikerlari berritzaileen esperientzietatik ikasten dugu.

Nerea Txintxurreta, Mekanikako Ingeniaritza, 3. maila.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
DONOSTIALDEA • **OTSAILAK 1**
Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa

ARRASATE • OTSAILAK 8
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA
OÑATI • OTSAILAK 8
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA • OTSAILAK 13
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO • OTSAILAK 15
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIALTZA • OTSAILAK 8
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA • OTSAILAK 8
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center
DONOSTIA • OTSAILAK 13
Osteguna, 18:00 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

> ZALDIBAR

Herritarren hiri antolamendurako ekarpenekin erakusketa egin dute

Apirilean hasi zuten parte-hartze prozesuak emandako emaitzak bildu dituzte



Teknikariak eta udaleko alderdi guztietako ordezkariak gidatuko dituzte erakusketara egingo diren bisitak.

> ITSASO ESTEBAN

Euskal Herria kaleko 8. zenbakiko lokalean dago Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berriro egiteko eginiko parte-hartze prozesuak emandako emaitzen erakusketa. Zaldibarko hirigintzari, sozioekonomiari eta ingurumenari buruz herritarrek eta politikariak teknikarien laguntzagaz egindako gogoeta nagusiak bildu, eta lehentasunen mapa osatu dute. Par-

te-hartze prozesua dinamizatu duten teknikariak eta udaleko alderdi guztietako ordezkariak gidatuko dituzte bisitak: otsailaren 1ean eta 5ean, 12:00etatik 14:00etara; eta otsailaren 6an eta 7an, 18:00etatik 20:00etara egingo dituzte bisita gidatu horiek.

Otsailaren 8an itxiko dute erakusketa, baina aurretik “festa-tailer” bat egingo dute egunean bertan. Koldo Telleria teknikariaren berbetan, “ekar-

penak egin dituen jende guztia eskertu” gura dute. Gainera, parte-hartze prozesuan lehen-tasunezko zat jo duten gaietako bati heldu, eta iritzia ematera ere gonbidatuko dute jendea, hau da, Euskal Herria kalea oinezkoentzat izan dadin dauden lau aukeren artean onena aukeratzera. Izan ere, “herrian oinezkoentzako erdialde bat sortzea” da herritarrek tailerretan markatu duten lehentasunetako bat.

> MALLABIA

Ikurrinari omenaldia egingo diote zapatuan

Udalak Espainiako bandera jartzeko agindua jaso du

> JONE GUENETXEA

Mallabiko Udalak udaletxean Espainiako bandera jartzeko agindua jaso du berriz ere. Udal arduradunek diotenez, aurreko legealdian ere heldu zen lege horren berri. “Oraingoan agindua bete ezean, isun altuekin

eta inhabilitazioagaz mehatxatu gaituzte”. Gaineratu dutenez, “Espainiako Gobernuak Euskal Herriaren aurka marraztuta duen ibilbidean beste eraso bat da hau”. Argi dute “inposizio bat” dela, eta Espainiako bandera ez dutela beraiena denik

sentitzen. Herritarrek mobilizazioetan parte hartzea eta ikurrina balkoietan jartzera gonbidatu dituzte.

Zapaturako ikurrinaren omenaldia antolatu dute. Trikitilariak kalejira abiatuko da udaletxetik, eguerdiko 12:30ean. Idatzia irakurriko dute eta ikurrina igoko dute. Ondoren, Agintariena dantzatuko dute. Parkean umeentzako horma-irudia margotuko dute eta ikurrinaren mosaikoa ere egingo dute.

> IURRETA

Eraso matxisten aurrean zelan jokatu zehaztu dute

Bilduk aurkeztutako mozioa aho batez onartu dute

> A.B.

Abenduan Abadiñoko igerilekuetan eraso egin zioten neskari “babesa eta elkartasuna” agertu dio Iurretako Udalak, Bilduk aurkeztutako mozio baten bidez. Haren eskubideak bermatzeko, Abadiñoko Udalak baliabideak bere eskura jar ditzala ere eskatu dute idatzian, egin den legez.

Horrelako gertaeren aurrean udalak hartuko duen jarrera zein izango den ere jaso dute aho batez. “Horrelako gertaera gehiagorik ez egotea espero dugu, baina gertatuz gero, udalak zelan jokatu jakiteko jarraibide bat izan daiteke”, esan du Bilduko Zorion Agirrezabalek. EAJ “puntuz puntu” ados dago. Iñaki Totorikaguena alkatearen

berbetan, “denbora pasa da gertakariak, baina mozioak badu zentzurik oraindik; zorritzarrez askotan gertatzen direlako horrelakoak. Beti egon gara eta egongo gara erasotzailearen kontra eta erasotzailearen alde”.

Herrian norbait erasotzailea edo erasotua dela baieztatzen bada, udala akusazio partikular lez aurkezteko onartu dute, eta neurriak hartzean “erasotzaileekin adostuta egitea”. Erasoa “batere injerentzia barik” ikertzea exijituko dute eta ez dute onartuko “biolentzia matxista darabilten erasotzaileak inpunitatez aritzeko”. Andreen eskubideen “defentsa irmoa” agintean dauden “ardura eta erantzukizuna” dela onartu dute.

Tabernabarri industriagunetik 700.000 euro dira udalarentzat

> A.B.

Udalak 700.000 euro jasoko ditu Arriandiko Tabernabarri industriagunea garatzeko sortutako konpentsazio-batzordearen likidazioagaz. Horretarako, likidazioa debekatu izan duen konpentsazio-batzordearen ohiz kanpoko Batzar Orokorren aurkako apelazio errekurtsioa onartu dute, aho batez. “Likidazioa oztopatzen ari da gehiengo duen jabea, hau da, Arriandi 2000 S.L.”, Iñaki Totorikaguena alkateak esandakoaren arabera.

Udala konpentsazio-batzordeko kide da, eta hartzekodun lez 700.000 euro zor zaizkio. Orain, udalak likidazioa bete-arazteko ardura hartu du.

Auto-ilarak langileek bizi duten egoera gizarteratzeko

> A.B.

Auto-ilarak egin dituzte Construcciones Metálicas Durango enpresako langileek Donostian eta Bilbon. Abenduan enpresa itxi zutenetik bizi duten egoera “gizarteratu” gura izan dute langileek. Herenegun eta atzo izan ziren protestak, CCOO-k deituta.

Langileen egoera salatu du CCOO-k eta enpresari eskatu dio “atzera egin” eta langileekin berba egin dezala. Salatu zutenetik, abenduan itxi zituen atea enpresak, “fede txarrez”; “aurretik abisatu gabe langile guztiak kaleratu eta gero, Merkataritza arloko Epaitegian hartzekodunen konkurtsoa aurkeztuta”.

IURRETAKO HEZKUNTZA EREMUA

Olaburu auzunea IURRETA



2-12 urte



12-18 urte

MAIZTEGI
HH eta LH

OROBIOGOITIA
DBH eta Batxilergoa



946 810 937 MAIZTEGI
946 810 461 OROBIOGOITIA

Matrikula epea:
otsailaren 3tik
otsailaren 14ra

- Gune egokia
- Jantokia eta garraioa
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak Iurretan

ERROTARITXUENA

DURANGO

HURRENGO ENTREGA!!

Etxebizitza hau zurea izan daiteke

Arriskurik gabe
eta baldintzarik onenetan



SabadellGuipuzcoano



Bisita ezazu gure
etxebizitza pilotoa

Finantzaketa %100 arte
Baldintzarik onenetan
eta idatziz bermatuak

2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZa
3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZa

Etorri BIDEOA IKUSTERA gure web gunera



www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

> DURANGO

Faustegoienako babes ofizialeko etxeen promozioa Bizkaira zabaldu du udalak

Baldintza ekonomikoak betetzen dituzten eskatzaile nahikorik ez da egon

> MARKEL ONAINDIA

Bizkai osoko biztanleak apunatu ahalko dira Faustegoienako babes ofizialeko etxeen zerrendan. Orain arte durangarrek bakarrik zeukaten aukera, baina baldintza ekonomikoak betetzen dituzten eskatzaile nahikorik egon ez denez, baldintza hori aldatu dute proiektua egi bihurtu ahal izateko. Ez da baldintzak aldatu dituzten lehenengo aldia; iaz bitan zatitu zuten promozioa, arrazoi beragatik. 58 etxebizitza

adjudikatu zituzten, eta oraingoan 70 daude emateko.

EAJk, PSE-EEk eta PPk onartu dute erabakia. Bilduk eta Aralarrek ez, eta gainerako alderdiak gogor kritikatu dituzte. Egoera soziala kontuan hartuta, etxeak alokairuan eskaintzea gura dute. Gainera, udalak lurzoruagatik jasotako dirua hor inbertitu behar duela uste dute. Dani Maeztuk (Aralar) esan du jabetzan erostea ez dela aukera bat dagoeneko, bankuek ez dute-

lako finantzaziorik ematen. Jon Bingen Landabideak (Bildu) gogoratu du Durangon 1.540 etxe daudela hutsik, eta Etxebiden 1.300 daudela izena emanda.

Goiztidi Diazek (EAJ) esan du eurentzako apustua dela proiektua, eta, lehen lez, orain ere bere alde egingo dutela. Pilar Riosen (PSE-EE) ustez, alokairuan ahalik eta etxe gehien egoteko ahalegina egin dute, eta jabetzan eskatu dutenek proiektua egitea merezi dutela dio.



Bilduk eta Aralarrek ez dute babestu erabakia.

Abortuaren lege berriaren kontra agertu da Durangoko Udala

Abortua prestazio normalizatua izatea gura dute

> M.O.

Durangoko Udala abortuaren lege berriaren kontra agertu da, PSE-EEk, Bilduk eta Aralarrek adostutako mozioaren bidez. EAJk ere esan zuen legeagaz ez dagoela ados, baina 2012an antzeko mozio bat onartu zela-eta, ez zuen uste beste bat eztabaidatzea beharrezkoa zenik. Mozioaren arabera, abortua Zigor Kor-

detik atera eta eskubide izatera pasa dadila gura dute. Abortua prestazio normalizatua izatea nahi dute, gaur egun sektore batzuek oztopoak dituztelako; etorkinek, esaterako.

PPk ezarri gura duen legea 1985eko eredu baina zaharragoa dela dio mozioak, eta bere atzean ideologia dogmatiko eta atzerakoia dagoela.

Alegazioak atzera botata, martxan dago aurrekontua

Kontu-hartzaileak ez ditu onartu alegazioak

> M.O.

Joan zen astean lau herritarrek 2014ko udal aurrekontua, behin behineko EAJk eta PSE-EEk onartua, gelditzea eskatu zuten. Horretarako, alegazioak aurkeztu zituzten udaletxean. Aurrekontuaren txostenean hainbat datu ekonomiko falta direla argudiatu zuten, eta horregatik legearen kontrakoa zela. Bada, kontu-hartzaileak ez ditu onar-

tu alegazioak, eta udalbatzak erabakia defendatu du.

Herritarrek hiru arrazoi agertu zituzten: udaleko sarre-rak justifikatu barik haztea, zorra ez izlatzea eta lurzoruagatik jasotako diruagaz zer egin ez zehaztea. Horri erantzunez, kontu-hartzaileak azaldu zuen sarrera eta gastuen aurreikuspenak kontrastatu direla. Zorren inguruan, BBKtik jasotako

mailegua ez dela erabili adierazi zuen, eta lurzoruagatik jasotako eskubide batzuk ez hartzea erabaki zela, agian ez zirela erabiliko aurreikusita.

Bilduk eta Aralarrek herritarrek babestu zituzten. Besteak beste, Dani Maeztuk (Aralar) azaldu zuen erakunde autonomo bateko gerenteak esan ziola agintzen diotenagaz alderatzen dituela berak datuak. Eider Uribek (Bildu) gogoratu zuen udalak bost milioi euroko soberrakina daukala, eta horregaz zer egin erabakitzeke ez dituztela herritarrek kontuan hartu.

Goiztidi Diazek (EAJ) kontu-hartzailea defendatu, eta aurrekontuak zentzuagaz egiten dituztela adierazi zuen.

> IZURTZA

Gazte biri laguntzen diete tapoiak batuta

Eibar eta Galdakaokoak dira gazte biak

> JOSEBA DERTEANO

Tapoiak batu, enpresetara eroan eta trukean jasotzen den dirua gaixorik dauden tratamendua finantzatzeko erabilitea aspaldian oso zabalduta dagoen ekintza soziala da. Izurtzako udaletxean orain hiru bat urte hasi ziren horretan, gaixorik zegoen eta tratamendua behar zuen Arrasateko gazte bati laguntza eskaintzeko. Orduan hasitako bideari oraindik eutsi egiten diote izurtzar askok, eta baita herritik kanpokoek ere, udaletxera tapoiak eramaten jarraitzen dutelako. Gaur egun bazen dituzten tapoiak, batez ere, Eibarko eta Galdakaoko gazte biri laguntzeko erabiltzen dira.

Divina Oteiza durangarra Eibarko Amaña eskolako irakaslea da eta hilean behin Izurtzako eta Mañariko tapoiak batu eta Eibarko eskolara eroaten ditu.

Han bada lau urteko neska bat hezurretan ezohiko gaixotasun bat duena. Urtean hainbat bider Valentziako ospitale batera joan beharra izaten du eta Izurtzako tapoiak (Eibarko herritarrek eroandako beste tapoiekin batera) bidaia horiek eta ospitaleko gastuak ordaintzeko balio dute.

Durangoko Maristak ikastetxera ere eramaten dituzte tapoiak. Ikastetxeko Gizarte Pastoraltzak bideratutako ekimen baten bidez, batutako tapoi guztiak Galdakaoko familia bati bidaltzen dizkiote. Izan ere, orain hiru bat urte 17 urte zituen galdakoztar batek odol-isuri bat izan zuen Durangoko Azoka bisitatzen zebilela. Orain tratamendu luze eta garesti batean sartuta dago. Bere lagun batek Maristetan ikasten du eta berak proposatu zuen tapoi bilketa hastea.

> GARAI

Abesbatza sortu dute Txistulari Egunean kantatzeko

> M.O.

Garain ospatuko da aurten Durangaldeko Txistulari Eguna, martxoaren 23an. Bertan hainbat ekitaldi egotea aurreikusi dute, eta herritar talde batek abesbatza sortu du zenbait abesti kantatzeko. Antza denez, urtero egoten da abesbatza baten emanaldia jai egitarauan, eta Garain talderik ez dagoenez, sortzea erabaki dute.

Zapatuetan batzen dira abesbatzako kideak entseguak egiteko. Kultur etxean izaten dute hitzordua, arratsaldeko 16:45ean. Momentuz hamabost eta hogeita hamar elkartzen direla azaldu du taldekide batek. Baina, herritarrei bertan parte hartzeko deia ere egin gura diete publikoki. Abesbatza Antton Mari Aldekoa-Otalora iurretarrak zuzentzen duela azaldu dute.

dharananda

Yoga irakasleentzako prestakuntza

Oinarritzko ikastaroa 2014-2016

Gemma Vidal Pinartek zuzendua

Aurreinskripziorako epea zabalik

Ostiralean, otsailak 7, arratsaldeko 19:00etan, ikastaroaren aurkezpena eta doako yoga saioa

www.dharananda.com

946 032 219 · info@dharananda.com

> DURANGALDEA ASTEON**Mendi zeharkaldia antolatu du Alpino-Tabira taldeak otsailaren 23rako**

Durangoko Alpino-Tabirak mendi zeharkaldia antolatu du otsailaren 23rako. Pirinioetan, Tena haranean dagoen Vértice de Anayet-era joango dira (2.555 metro). Formigal eski estazioetik irtengo dira. Izen-emate epea otsailaren 19an amaituko da. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 40 euro. Informazio gehiagorako telefono bat ipini dute: 946 203 153.

Berdeago azokak 12.000 lagun batu ditu Durangon

Berdeago azokaren antolatzaileak pozik agertu dira ekimenak izandako harreragaz. Hiru egunetan 12.000 lagun joan ziren Landako Gunera. 50 enpresak ipini dute erakustokia, iaz baino heren batek gehiagok. Berbaldi eta tailerretan 1.000 lagunek parte hartu zuten.

Alkoholismoak familia giroan duen eragina berbagai

Alkoholismoak familia giroan dituen eraginei buruzko informazio hitzaldia antolatu du Al Anon elkarteak otsailaren 7rako, Durangoko nagusien egoitzan (19:30etik 21:00etara). Joseba Marcos psikiatrak eta Alkoholiko Anonimoko kideek parte hartuko dute, besteak beste.

Txiki Park gunea zapatuan zabalduko dute Durangon

Txikientzako jolaslekua egokituko dute aurten ere Landako erakustazokan. Durangoko Udalak egokitutako Txiki Park gunea otsail, martxo, apiril eta maiatzeko asteburuetan egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Doan izango da sarrera erabiltzaile guztientzat, dagokion edukiera bete arte.

> ELORRIO**Presoen giza eskubideez berbaldia egingo dute Arriolan**

Presoen “salbuespen neurriak” azaldu gura dituzte

> MARKEL ONAINDIA

Presoen eskubideen aldeko mugimenduak deituta, berbaldia egongo da hurrengo barikuan, otsailaren 7an, Arriolan. Presoei ezarritako “salbuespen neurriak” azaldu gura dituzte: “Guztion artean gainditu ditza-kegula adieraztea da helburua”.

19:30ean hasiko da hitzaldia. Mati Iturralde medikuak Jaiki Hadi elkartetik egiten duten laguntza lana azalduko du. An-

doni Lupiañezek anaia dauka kartzelan, Gorka, eta senide zein lagunek dispertsioa zelan bizi duten kontatuko du. Herriko presoen egoeraz berba egingo du Haritz Luzarrek. Laugarren hizlaria Julen Mendoza izango da, Oreretako alkatea (Bildu). 2013an, alderdi guztietako ordezkariak *Eraikiz* zinema eta antzerki zikloa antolatu zuten herri horretan, bakeaz hausnartzeko aukera eskaini guran.

Bizikidetza Eguna ospatu dute Txintxirri ikastolan

Txintxirrin bizikidetza lantzeko talde bat daukate

> M.O.

Txintxirri ikastolan Bizikidetza Eguna ospatu zuten astelehenan. Ghandi hil zuteneko urtemuga urtarrilaren 28a da, eta egun horren harira antolatu ohi dute azken urteetan jardunaldi hori. Ikastetxeko ikasle eta irakasleek, taldeka nahastuta, jolasak egin zituzten. Gainera,

Egin irribarrea eta besarkatuko zaitut izan zen eguneko lema. Horregatik, besarkada ugari eman zituztela azaldu dute.

Txintxirrin bizikidetza lantzeko talde bat daukate. Egunerokoan sortzen diren arazoak bideratzen saiatzen dira eta prebentzio lana egiten dute talde horren bidez.

> BERRIZ**Herriko merkatariek gaur hasiko dute aukera azoka**

Pilotalekuan zazpi merkatarik ipiniko dute postua

> AMAIA UGALDE

Berrizko pilotalekua merkatu bihurtuko da gaur 17:00etatik

aurrera. Asteburuan aukera azoka egingo dute bertan BME Berrizko Merkatarik Elkarteko



Iaz ere hainbat berriztar animatu zen aukera azokara.

> MAÑARIA**Hirigintza planerako alternatibak lantzeko ordua**

Eguenean egingo dute azken tailerra, 19:00etan

> M.O.

Datorren egunean, otsailaren 6an, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra zehazteko prozesuak etapa bat itxiko du. Izan ere, azkeneko tailerra egingo dute herritarrekin. Bertan, herriko lurren arabera asmatutako proposamen batzuk landuko

dituzte, eta batzarrean onartzen direnak izango dira planaren aurrerapenean egongo diren alternatibak. Hurrengo fasean, alternatiba horiek erakusketa batean ipiniko dituztela azaldu dute, eta, aukerak ikusita, botoa emango dute gero mañariarrek. Udaletxean egingo dute egue-

kideek, eta, aurten, zapatuan eta domekan izan beharrean, barikuan eta zapatuan izango da azoka. Gaur 17:00etatik 21:00etara egongo dira pilotalekuan, eta, bihar, 11:00etatik 19:00etara.

Zazpi denek parte hartuko dute azokan: Txaparro denda, Boutique Luisa, Ibai-Ondo burdindegia, Tipi-tapa umeen arropa denda, Salkin kirol-denda, Txiki-txiki mertzeria eta Asibar arropa denda.

Satur Blanca BMEko presidentearen arabera, herritarrek aprobetxatzeko moduko jeneroa egongo da azokan: “Beharape-nak baino hobe da. Bisitatu egin behar den zerbait da, beti topatzen delako zer edo zer”.

nean azken tailerra, iluntzeko 19:00etan hasita.

Irailetik hona lanean

Irailean hasi ziren Plan Orokorra berrizteko prozesuagaz. *Alkarregaz* lelopean, udaleko alderdi biek bultzatu dute prozesua, eta parte-hartzailea izatea gura izan dute. Hainbat tailer egin dituzte azken hilabeteotan: diagnostikoa, balorazioa, herriko lurren ingurukoa eta proposamenak aurkeztekoa. Beraz, azken urratsa bakarrik falta da etorkizuneko Mañaria zelakoa izango den zehazteko bidean.

AURREMATRIKULA ZABALIK
otsailak 3-14

Mundura zabalduz...

GIZA BALOREAK

irakasleen kooperatiba

DENON PARTAIDETZA

BERRIKUNTZA METODOLOGIKOA

Irakasleen Kooperatiba
San Antonio-Santa Rita Ikastetxea

Balbino Garitaonandia 3, DURANGO / T.94 681 67 76 F.94 681 41 61
www.sanantonio-santarita.com / ikastetxea@sanantonio-santarita.com

Euskadi 2010

► Berbaz

Liher Gonzalez | Durango, 1982 | Koop 57 ekimeneko kidea. Humanitate eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna

“*Lana gizarte justuago bat egiteko erabili daiteke; horretara jo behar dugu*”

Finantza etikoko kooperatiba da Koop 57. Proiektu kolektiboei maileguak emateko sortu zen Herrialde Katalanetan, eta Euskal Herrian ere hasi dira egitasmoa zabaltzen; gizarteari onura egiten dioten egitasmoak dira protagonista, Liher Gonzalezen berbetan.



> AMAIA UGALDE

Koop 57 ez da bankua, baina bankuen funtzio batzuk badauzka.

Ez, ez da bankua. Ezin die, adibidez, kutxazain bidez dirua bazkideei eman, edo nominak helbideratu edo argiaren faktura pasatu. Koop 57k proiektu kolektiboak finantzatzen ditu, bere bazkide diren elkarte, kooperatiba edo taldeen proiektuak, baina interes tipoak berak gura dituenak jarri ahal ditu, eta bere produktu finantzarioak diseinatu ditzake, Banku Zentralak esaten duenaren menpe egon barik.

Proiektu bat aurrera eroan gura duen talde batek Koop 57ra jotzen du. Zelan izaten da horrik aurrerakoa?

Entitateek galdetegi sozial bat betetzen dute. Galdetegi hori Koop 57ren oinarritzko hiru irizpideen gainekoa da: gestio demokratikoa, aberastasunaren bidezko banaketa eta ingurumenarekiko errespetua hartzen ditu kontuan. Galdetegiko erantzunak aztertuta, eta, behin oinarriak beteta, entitatea Koop 57ko bazkide bihurtzen da. Mailegua eskatu gura badu, batzorde tekniko batek azterketa egiten du jakiteko sortuko diren lanpostuak egonkorrak izango diren,

ea proiektua bideragarria den... Sekula ez da ezetz esaten kreditu bat ematerako orduan.

Beti esaten da baietz?

Beti ez, baina baldintzak jartzen dira proiektua moldatzeko, eta horrela kreditua jasotzeko. Irizpide sozialak betetzen ez baditu, edo teknikoki bideragarria ez dela ikusiz gero, aholkuak ematen ditugu, eta moldaketak eginez gero, jaso ahaliko dute mailegua.

Gaur egungo ekonomia ereduari buelta bat eman gura diozuela diozue.

Argi gelditu da egungo sistema kolapso egoeran dagoela. Orain

“*Orain arte mugimendu sozialetan egon diren ekimenak ez dira oso lotuta egon ekonomiarekin*”

arte mugimendu sozialetan egon diren ekimenak ez dira egon oso lotuta ekonomiarekin, baina bai gizartearekin. Agian proiektu horiek ekonomiarekin lotzen hasi behar gara, eta norberaren lanpostua erabili gizartea eraldatzeko. Horretara jo behar dugu: lana gizarte justuago bat egiteko erabiltzerara, ingurumena errespetatuta, lanarekin aberastasuna modu ekitatiboan banatuta...

Talde edo kooperatibez gainera, norbanakoak ere izan daitezke bazkide, ezta?

Bai. Bi bazkide mota daude: Batzuk norbanakoak dira, aurrezkiak sartzen dutenak, mailegurik jasotzeko ahalmen barik. Horiek ordainsari bat jasotzen dute urte amaieran. Beste bazkideak zerbitzu bazkideak dira, Koop 57ren irizpideak betetzen dituzten entitateak, eta aurrezteaz gainera, kredituak jaso ditzakete. Bazkide laguntzaileek 300 euroko ekarpen minimo bat egin behar dute, eta entitateek 1.000 eurokoa. Gehienez 400.000 euroko maileguak ematen ditugu.

Euskal Herrian ia urte bete da-roazue Koop 57 zabaltzen. Zelan joan da orain artekoa?

Talde eragile bat gabiltza egitas-

moa ezagutarazten, eta bagabiltza bazkideak egiten; maileguak ematea ere lortu dugu. Pozik gaude. Euskal Herrian horrelako tresna batentzako aukerak daudela ikusten dugu. Hemengo filosofiak, lan egiteko moduak eta dauden mugimendu sozialek horretan laguntzen dute.

Zeintzuk dira Koop 57ren berezitasun handienak?

Momentuz Euskal Herria da gure lurraldea. Lan bolumena handitzen bada, demagun Euskal Herriko inguru konkretu batean, adibidez, Durangaldean, bertako jendeak atal lokal bat sortzea erabaki dezake. Bertan proiektu asko sortu badira, eta bazkide asko badaude, mugimendu hori bertatik kudeatzeko aukera dago. Kontua ez da gero eta handiagoa izatea, gero eta hedagarriagoa izatea, alderantziz bizik: lokalagora jotzea da helburua. Ez da beste edozein enpresak daukan logika.

Maileguetan ez duzue abal patrimonialik eskatzen.

Hori da. Entitate batek kreditua eskatzen badu, eta Koop 57k ez badauka argi enpresak kaudimena daukan, kooperatiba berria delako, esaterako, ez da eskatzen langileen etxeak

abal moduan jartzeko, adibidez. Babesleak eskatzen ditugu: enpresa batek 20.000 euro eskatzen baditu, hogeitak pertsona lortzea, bakoitzak 1.000 eurogaz proiektua abalatzeko. Idatziz, kontratu batekin hartzen dute konpromisoa. Kreditua bueltatu ezin den kasuetan, pertsona horiek euren zatia ordaintzen dute, eta Koop 57k ez du interesa aplikatzen, interesatzen zaiona proiektua aurrera ateratzea delako. Egoera bakoitzean ordainketa negoziatzeko aukera dago. Bankuetan hori ezinezkoa da.

Herrialde Katalanetan jaio zen egitasmoa. Bertan fruitu asko eman ditu?

Bai. Mila bazkide baino gehiago ditu, eta hirurehun enpresatik gora dira bazkideak. Itzela da kontuan hartuz gero bazkide guztiek irizpide berak dituztela. Adibidez, enpresa horiek, aberastasunaren banaketan, bat biko soldata-eskala daukate. Horrek esan gura du gehien kobratzen duenak ezin duela kobratu gutxien kobratzen duenaren bikoitza baino gehiago. Konpromiso hori hartzea itzela da. Hemen enpresa indartsuetan bat zazpiko eskalak ere egon dira.

Informazioa: www.coop57.coop

PIVE plana badago, PIVE plana ez dago...

PIVE plana Forden dago oraindik.



FORD FIESTA

SYNC Erabateko Konektibotasuna

8.390€

FORD FOCUS

EcoBoost Motorra

12.790€

Gasolinazko motorren
potentzia eta diesel
motorren eraginkortasuna.



ford.es

Ford Fiesta eta Focus gama; batez besteko kontsumo konbinatua 3,6tik 7,2ra (l/100 km).
CO₂-aren isurtzea 95 g/km-tik 160 g/km-ra

Fiesta 3p Trend 1.25 60 zaldi-potentzia (44kw) airearekin eta CD MP3 iratiarekin; Focus Trend 1.0 EcoBoost (EcoBoost Motorrak %20ra arte hobetzen du kontsumoa, motor arrunt batekin alderatuz gero) Auto-Start-Stop 100 zaldi-potentzia (74kw) 5P Barneko Paketea eta Style Paketearekin. Eskaintzek honako hauek dituzte: BEZa, I.M., garraioa, sustapen deskontua, Aport. Emate eta deskontua FCE Bank plc S.E. entitatearekin finantzatzearren, "Vente a Ford Credit" kanpainaren bidez; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren ekarpenari lotua. Penintsulan eta Balear Uharteetan baliozko, hilabete amaierara arte. Ez da bateragarria bestelako deskontuekin. Posible da argazkiko modeloa eta eskaintzakoa bat ez etortzea.

FORD KONDIA

Otaola etorb. 20600 EIBAR

Tel.: 943 207 650

Tel.: 943 200 966

www.fordkondia.com

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19

48215 IURRETA

Tel : 946 217 130



Asteburuan hiru aukera izango dira, Durangoko San Agustin kulturgunean, 'Con los pies en las nubes' musikala ikusteko. Antzoki horretatik eman dituzte lanaren inguruko azalpenak.

Ikusmin handia sortu du 'Con los pies en las nubes' musikalaren estreinaldiak

Gaur, bihar eta etzi eskainiko dute L'Atelier dantza eskolaren eta La Papa antzerki taldearen 'Con los pies en las nubes' Durangoko San Agustin kulturgunean. Hiru emanaldietarako sarrera guztiak saldu dituzte

ITSASO ESTEBAN

Martitzenean, Durangoko San Agustin kulturgunean aurkeztu zuen *Con los pies en las nubes* izeneko musikala Durangaldeko sortzaileen ordezkartza zabal batek: L'Atelier eskolako dantzariak, La Papa taldeko antzerkigileak, proiektu honetara batu zaizkien diziplina anitzeko artistak eta Jon Kepa Garro Durangoko Udaleko zinegotziak eskaini zuten prentsaurrekoa.

Asteburu honetan (urtarrilaren 31n, eta otsailaren 1ean eta 2an), hiru emanaldi egingo dituzte *Con los pies en las nubes* San Agustinen eskaintzeko, eta dagoeneko ez dago sarrerarik salgai. Hiru aldiz erabat beteiko dute eskualdeko sortzaileek Durangoko San Agustin kulturgunea. Jendearen erantzunagaz oso pozik agertu dira sortzaileak, eta ikusleengan horrelako ikusmina sortu izanak emandiei "erronka kutsua" ematen diela azpimarratu zuten.

Roberto Oviedo pianistak zuzenean joko du emanaldi horietan Jon Ugarrizak ikuskizun honetarako propio sorturiko musika. Gainera, adin guztietako hamazazpi lagunek jardungo dute oholtzan; dantzari, antzezle eta musikariek elkar hartuta dihardute musikal komiko honetan. Ricardo Combi zuzendariak idatziriko istorioa kontatzen du *Con los pies en las*

nubes obrak, eta Ana izeneko neskatila da protagonista. Bizitza xume eta baliabide gutxikoa izanagatik, indar handiko ametsak dauzka Anak: dantzaria izan nahi du. Giada Combik antzezten du Ana umetan, eta Paule Mallagarak hirira dantza ikastera joatea erabakitzen duenean, nerabezaroan.

Izaskun Asua La Papa taldeko aktoreak azaldu zuenez, Oiane Azkonizaga L'Atelier dantza

Oiane Azkonizaga: "Denon energiak batuta, hau bezalako lan ederrak egitea posible dela frogatu dugu"

eskolako zuzendariak egin zien duela urtebete musikal bat elkarlanean sortzeko proposame-

na. Hain zuzen, Azkonizagarena da asteburuan estreinatuko duten musikalaren koreografia: "Dantzaren ikuspegi anitza eman nahi genuen", azaldu zuen: "Klasikoa, garaikidea, hip hopa...". Ethan López dantzariak, esaterako, kaleko dantzen presentzia dakar obrara. Gael izeneko pertsonaiaren papera antzezten du dantzari gazteak.

"Gure bizitza eta ogibideez gainera, proiektu honetan el-

karlanean aritzeko, denok eman dugu bakoitzak gure onena", esan zuen Combik. Era berean, "denon energiak batuta, hau bezalako lan ederrak egitea posible dela frogatu dugu", gehitu zuen Azkonizaga dantzariak.

Bidean aurkitu duten zailtasunik handiena "diziplina guztiak uztartzea" izan dela azpimarratu zuten agerraldian. Anaren amaren papera egiten duen Izaskun Asua aktore elorriarraren berbetan, "opari bat izan da proiektu honetan aritu ahal izatea; izan ere, denok eman dugu pauso bat gurea ez den diziplinaren batean jarduteko: ikusi dugu bakoitza zelan joan den hobetzen diziplina berri horietan. Taldearentzako bultzada handia da ikustea denok aurrera zelan egiten dugun".

Zailtasunak gogoarekin eta teknikarekin gainditu dituzte

Lan amateurrek emaitza profesionala ekarri du



Antzezleak, ikuskizuneko abesti baten zati bat kantatzen.

Con los pies en las nubes sortzeko elkarlanean parte hartzen duten gehienentzat, lehenengo aldia da musikal batean lan egiten dutena. Horrela adierazi du Ethan López dantzariak, esaterako: "Ez dut sekula lehenago horrelakorik egin, eta oso motibatuta jardun dugu dantzariok elkarlanean".

Jon Ugarrizak ere lehenengoz sortu du antzezpena, zuzeneko musika, dantza eta kantua uztartzen dituen *Con los pies en las nubes* bezalako ikuskizun baterako soinu banda: "Aurretik folk musika eta musika korala landu izan ditut, eta lehenengoz jardun dut eszenarako musika sortzen. Ricardo Combik hasieratik oso ondo landu du obra, eta guztiz barneratua dago musika ikuskizunean. Erronka handia izan

da, baina oso gustura egindako lana, batez ere". Ugarrizak azpimarratu duenez, "itxura batean soila dirudien lan amateurra egin arren, emaitza profesionala lortu dugu: muga ekonomikoak eta sortu diren zailtasunak gogoarekin eta teknikarekin gainditu ditugu".

"Muga ekonomikoak eta sortu diren zailtasunak gogoarekin eta teknikarekin gainditzea lortu dugu"

Nahiz eta badakiten taldeki-de guztiak koordinatzea ez dela erraza izango, obra Durangaldeko eta inguruko publikoari beste emanaldi batzuetan ere eskaini gura lieketela adierazi dute sortzaileek.

> DANTZA

Dantzazale gazteen erakustaldia Elorrioko Akadantz lehiaketan

Elorrioko Arriola antzokia kaleko dantzen erakusleho bilakatuko da, bihar, 18:00etan hasita; seigarren aldiz antolatu dute, bertan, Akadantz lehiaketa

> ITSASO ESTEBAN

Iaz bezala ekingo diote Akadantz lehiaketari, aurrez sarre-ra guztiak salduta, baina seigarren edizio honetan iaz baino parte-hartzaile gutxiagorekin.

Iaz 26 taldek eman zuten izena. Aurreko urteekin alderatuta, parte-hartzaile kopurua bereziki hazi zen iaz: 2012an baino hamar talde gehiago aritu ziren 2013ko lehiaketaren edizioan.

Euskal Herriko eta Kantabriako dantzariak eman dute parte hartzeko izena, aurten, gazte eta amateurrei zuzenduriko lehiaketa honetan; tartean, Durangoko talde batek.



Adinaren arabera bi kategoriatan jardungo dira dantzariak; batetik, 15 urte artekoak eta, bestetik, 16tik gorakoak.

Elorriko Arriola antzokian da Akadantz lehiaketa eta erakustaldiaren 2014ko hitzordua, bihar, 18:00etatik aurrera. Gaur egungo dantzen hiru modalitateetan jardungo dira, Arriolan, dantzariak: dantza esperimental, kaleko dantza eta *breakdance* arloan emango du bakoitzak bere onena. Bi kategoriatan ariko dira: batetik, 15 urte artekoak eta, bestetik, 16tik gorakoak.

Hiru dantza modalitateetan ariko dira: 'breakdance', dantza esperimental eta kaleko dantza arloan

Gehienez ere, hiru minutuko ikuskizuna eskainiko du talde bakoitzak, eta emanaldiaren originaltasuna, sormena eta dantzarien trebezia hartuko du kontuan dantzariz osaturiko epaimahaiak sariak banatzera-ko orduan.

Azken urteetan bezala, giro beroa espero dute Akadantz lehiaketan. Martxoaren 29an Bilbao Arenan izango den Break On Stage jaialdiaren beroketan.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Berbaroko kidea



Noren esku

Lagun italiarrak bisita egin digu Gabonetako oporraldia aprobetxatuta. Aurten Alto Adigioko Bolzenen egokitu zaio eskolak ematea. Ofizialak diren hizkuntza bietan ikasteko aukera dute ikasleek, batean edo bestean. Biak indartsu, bizikide. Mestizajea baden arren, nor bere identitatea du nabarmen. Hemen ez bezala, argi dute nor diren eta nor izan gura duten, kasu gehienetan behintzat.

Badirudi euskaldunok langabezia zaudetela nahita, eginkizun barik, motibazio barik; subsidioa kobratuta eroso bizi zarete, bota du hiruzpalau trago hartu ostean.

Nagia, lan nekeza, pizgarriak eza... Erosotasuna edo erosokeria? Uste zuen talde bereizi bateko kide sentitze hutsak mugiaraziko gintuela... Alto Adigioko italiarrek eta alemanek ez dute motibaziorik behar direnak izateko, identitatea ondo itsatsita daramate odolean, kultura menderatzaileak baitira, hor aldea.

Motibatua izateak arriskua dakar; erabakiak hartzea, bizitzaren arloren bat aldatzeko nahia dago... Borroka bizian ari gara geure buruekin, arrakastaren bila barik, porrota saihestu nahian.

Gogoeta interesgarria utzi zigun duela aste bi Andonik Lau Hortzan. Boteretsuek baliabide eraginkorrak jarri dituzte gure kultura txiki ederra gutxiesteko, guk geuk ere arbuizatzeraino. Izaera setati eta ekimentsuak eredu bilakatu omen gaitu, ordea, munduan. Eta, hala ere, etxean ez dugu asmatu identitatea zer den ondo transmititzen.

Mugiarazten gaituen erakustaldi ederrak ikusten ari gara aspaldi honetan. Beste bat ere bidean da, gure esku dago, eta euskara noren esku utziko dugu?

> JAIALDIA

Autorretratuak kalera aterako ditu Begirak

> I.E.

Ekainean Durangon ospatuko duten Begira Photo jaialdian parte hartzeko gonbidapena luzatu du Kinua argazki elkar-teak. Deialdi horri erantzuten diotenen lanetatik aukeraketa bat egingo dute, eta, iaz bezala, Durangoko udaletzeko plazan Correosek duen eraikinaren fatxadan ipiniko dituzte ikusgai.

Autorretratuak bidaltzera gonbidatu dituzte argazkizaleak, oraingoan, eta maiatzaren 10era arteko epea zabaldu dute euren lanak bidaltzeko. Kinua elkar-teak info@begiraphoto.com helbidea ipini du eskura, ekimenean parte hartu gura dutenei informazioa luzatzeko. Jendeak bidalitakoetatik bost argazki aukeratu dituzte, eta ekainaren 10etik 29ra ipiniko dituzte formatu handian ikusgai.

> EKIMENA

San Blas egunean, Magdalenaren eta Garaizabalen eskutik: Arte-potea

Otsailaren 3an aurkeztuko dute 2d1 proiektuaren sortzaileek ekimen berria

> I.E.

Peru Magdalena eta Gotzon Garaizabal artisten elkarlana da 2d1, eta euren ekimen eta asmakizuna Arte-potea izeneko. Otsailaren 3an, San Blas egunean, euren lanetarako hartu berri duten Zelaletako probaleku alboko lokalean eskainiko dute Arte-potea, goiz eta arratsalde. Magdalenarekin eta Garaizabalekin, Mikel Garaizabal enologoa eta Luberrri upategiko arduraduna ere izango dira Abadiño saioan.

Ardo dastaketa, mokadua eta artea uztartuko dituzte hitzordu horretan. Horretarako, propio sorturiko 15x15 zentimetroko artelana, ardo kopa eta pintxoak 5 euroren truke eskainiko dituzte.

Astelehenean egingo dute lehenengoz 2d1ekoek Arte-potearen proposamena, Abadiñon, baina enologia, gastronomia eta artea uztartuta hainbat saio egin dituzte azkenaldian. Esa-

terako, *Hordago ardoa* ikuskitzunaren saio bat egingo dute Bilboko Alondegian, Aste Santuan: musika, kantua eta poesia uztartzen ditu ardo dastaketa artistiko horrek.



Enologia, gastronomia eta artea elkartu dituzte ekimen horretan.

Con los pies en las nubes
La Papa & L'Atelier

Urtarrilaren 31n - 20:00etan
Otsailaren 1ean - 20:00etan
Otsailaren 2an - 18:00etan

El Interprete
Asier Etxeandia

Otsailak 8 - 20:00etan

San Agustín KULTUR GUTIA

Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

OTSAILAK 7 - 22:30ean 10/12 euro
COTILLAS
Gorka Aginagalde + Iñigo Salinero
ANTZERKIA

OTSAILAK 9 - 17:30ean 3 euro
PUSKI ETA TXURRUSKI
PAILAZOAK
HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

OTSAILAK 14 - 21:30ean DOAN
DURANG(H)OTS JAM SESSION
MUSIKA KONTZERTUA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu

deitu!

946 217 902

Kirola

Egoitz Murgoitio | 30 urte, Abadiño | Txirrindulari ohia

“Lasterketei aurre egiterako orduan ez nuen betiko irrika eta ilusio hori sentitzen”

Oraindik 30 urte dituen arren, ilusio eta motibazio barik aritu baino, ziklo-krosa uztea gurago izan du Egoitz Murgoitio; lesionatu aurretik Munduko Kopan lortutako emaitza bikainak ez dira nahikoa izan abadiñarrarengan sasoi bateko gogoa pizteko



Belgikako Munduko Kopako lasterketa batean lehiatu zen azkenengoz Egoitz Murgoitio.

► JOSEBA DERTEANO

30 urteagaz fisikoki oraindik sasoi betean dago Egoitz Murgoitio. Lesionatu arte Munduko Kopan onenekin borrokan aritu da. Taldearen eta babesleen (Hirumet eta Orbea) sostengurik ez zaio falta. Testuinguru itxaropentsu hori duen ziklista bat zerk eraman dezake txirrindularitza uztera? Murgoitio berba bitan laburbildu du: motibazio faltak.

Zein izan da ziklo-krosa uzteko arrazoi nagusia?

Ziklo-krosa nire ogibidea izan da, baina ilusioa eta motibazioa beti gainezka izan ditut. Aurtengo denboraldirako ere beti lez entrenatu dut eta zaindu naiz, baina igartzen nuen buruak ez zuela beste urte batzuetan bezala funtzionatzen. Lasterketei aurre egiterako orduan ez dut betiko irrika hori igarri.

Fisikoki ondo zaude?

Bai, fisikoki ondo nago, arrazoiak ez da hori izan. Gehiago da entrenamenduei edo lasterketei aurre egitea obligazio lez ikusten nuela. Inork ezarri bako obligazioa, nik neure kontura hartutakoa. Ilusio falta da arrazoiak. Esaterako, Munduko Kopako lasterketek beti motibazio berezia sortu izan didate, ahalik eta goren amaitzeko gogo bizi hori izan dut, baina aurtan ez

dut horrelako sentsaziorik izan gorputzean.

Azaroan Belgikan (Koksijde herrian) Munduko Kopako lasterketa batean erori eta saihetsetan min hartu zenuen. Harrezkero ez duzu lehiatu. Lesioak zenbaterainoko eragina izan du azken erabakian?

Berrirori lehiara bueltatzeko sendatze epeak azkartzen saiatu nintzen, baina uste dut saiakera horrek epeak laburtu beharrean luzatu egin dituela. Dena dela, gauza askogaz joan da apurka betetzen edalontzia, eta lesioarena izan da uzteko erabakia hartzera eraman nauen azken bultzadaxoa, besterik ez.

Ererikoaren aurretik Munduko Kopan sekula baino hobeto aritu zara: Herbehereetan hamalaugarren eta Txekiar Errepublikan hamabigarren. Emaitza horiek motibagarriak ziren.

Postu onak izan ziren eta sailkapen orokorrean hamargarren kokatzea ere inportantea izan zen. Hemengo txirrindulari bat sekula ez da horrelako postuetan egon. Emaitzak onak izan dira eta hori garrantzitsua da, baina beste urte batzuetan emaitza txarragoekin gusturago sentitu naiz. Emaitza onek ez naute asebate behar nuen horretan. Eta pentsatu dut kontraste hori seinale inportantea dela ulertze-

ko, beharbada, bazela sasoi txirrindularitza utzi eta bizitzako beste kontu batzuetan hasteko.

Irudipena da 30 urteagaz oraindik behetik gorantz zihoan txirrindularia zinela.

Errepideagaz alderatuta, ziklo-krosak, normalean, ibilbide luzeagoa egiteko modua eskaintzen du. Adinez oraindik urte batzuk nituen aurretik; baita babesleen aldetik ere. Zaleek beti animo asko eman dizkirate eta babesleei dagokienez, Hirumet eta Orbearen babesa nuen. Baina horretaz gainera, norberak ere ondo sentitu behar du egiten dabilen horregaz.

“

Pozik nago hartutako erabakiagaz eta nire bizitzan positiboa izango dela uste dut”

Inguruko jendea saiatu da ziklo-krosean jarraitu zenezan konbentzitzen?

Bai; lagunak, lasterketa gehienetara nigaz etorri direnak zein babesleak saiatu izan dira ni konbentzitzen. Lesioaren ondorioz sortu zen momentu bateko beroaldia izango nuela pentsatzen zutela uste dut. Baina ez zen horrela.

Hirumeteko arduradunei noiz eman zenien erabakiaren berri?

Etxekoekien berba egin ostean, lehenengo, taldeko buru Jon Zengotitabengoari eta Hirumeteko buru Ramon Madariagari komentatu nien orain hilabete batzuk. Lesioa sendatzeko prozesuan lehenengo epeak bete zirenean esan nien ez zela behin betiko erabakia, baina bai hausnartutako kontua zela, eta gertatu zitekeela. Eta bien partetik jaso dut ulermena eta babesa.

Zer esango zenieke hainbeste urtean jarraitu zaituzten zaleei?

Lasai egoteko. Ez dut kontu honekin dramarik eragin gura. Erabaki hau hartzera ez nau inork behartu. Gaur egun bizi dugun egoeran txirrindulari asko behartuta egon da euren gogoz kontra txirrindularitza uztera. Nik ez dut horrelako arazorik izan. Erabakia neurea izan da, lehiaketak berekin dakartzan alderdi batzuekin ez nengoelako gustura utzi dut. Pozik nago hartu dudana erabakia-ekin eta nire bizitzan positiboa izango dela uste dut.

Zure ibilbidean hamaika txapelketa irabazi dituzu, baina Munduko Kopan hamar onenen artean behin ere sailkatu ez izana arantza txiki bat da?

Ez. Ziklo-krosean nazioarteko lasterketetan gaitza da aurrean

amaitzea. 2011n Igorren hamai-kagarren sailkatu nintzen, eta, aurtan ere, hamalaugarren eta hamabigarren sailkatu naiz. Eslovakian nazioarte mailako lasterketa bat irabazi dut. Lortutako emaitzekin pozik nago, beti geratzen da bete ez den ametsen bat, baina nire ibilbideagaz oso gustura nago.

Eta hemendik aurrera, zer egiteko asmoa duzu?

Ez dut ezer planifikatuta. Dakidana da, behintzat, hasiera honetan lan moduan ez dudala bizikletagaz zerikusia duen ezer planteatzen. Nigaz entrenatzen ibili den norbaiti ezertan lagundu ahal badiot edo gazteren batek nire laguntza extraofizialik behar badu, nik ez dut inolako arazorik laguntza hori emateko. Baina bizikleta erdigune duen lanik ez dut nahi. Hortik kanpoko zerbait nahi dut orain, bizimodu normal eta lasaia.

Bizikleta afiziora mugatuko duzu, orduan.


Hori da, bizikletan ibiliko naiz, mendiko bizikleta martxak egingo ditut, orain arte errepi-dean nigaz entrenatzera irten izan direnekin irteten jarraituko dut, baina txirrindularitza beste modu batera gozatuko dut.

Zuk txirrindularitza utzi duzu eta Jonathan Lastra Caja Rural taldera doa. Zer gertatuko da Hirumet taldeagaz?

Ez dut uste oraindik horri buruz berba egiteko sasoi denik. Jonathan Lastra taldean ari da oraindik, asteburuan Munduko Txapelketa lehiatuko du eta horrelako kontuek arreta galaz diezaioke. Dena dela, nire ustez, Lastrak erabaki zuzena hartu du Caja Ruralera joanda. Errepidea probatzeko oraintxe du adin aproposa (21 urte). Ziklo-krosa gero ere hor izango du. Errepidean urte biko aritu eta ondoren ziklo-krosara itzultzen bada ere, gaztea izango da.

Munduko Txapelketan zer aukera ikusten dizkiozu?

Zirkuituaren egoerak zeresan handia du. Lokaztuta badago, zirkuitu gogorra izango da, eta baldintza horiek ondo datozkio. Iazko hamabosgarren postua hobetzea emaitza oso ona litzateke Lastrarentzat.



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz.
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaioarnizatuak.com



ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

ARGIZTATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



ITURGINTZA

Solaguren kalea, 3 - ABADIÑO
Tel.: 946 814 474
Faxa: 946 215 374
urtiaga.sieterra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



GARBIKETA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15



LOREZAINZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

> ARETO FUTBOLA

Betebeharrak beteta egingo dio aurre Sasikoak Mallabiari domekan

Sasikoa talde igo berria da, baina Hirugarren Mailako goialdean dabil; mailari eusteko puntu kopurutik gertu, lehen zortzietan geratu eta koparako sailkatzea du helburu liga amaitu artean



Joan zen asteburuan Sasikoak 7-3 menderatu zuen Egintza taldea. Kepa Aginako.

>JOSEBA DERTEANO

Sasikoak eta Mallabia Tabirako taldeek denboraldi hasierako helburuak trukatu egin dituztela ematen du. Hirugarren Mailara igo berria den Sasikoak mailari eustea zuen helburu, baina bigarren itzulia aurrera doala, seigarren kokatuta dago; goialdean dabil eta Koparako sailkatzea gura dute sasikoako jokalariek, aurreneko zortziren artean geratuta. Mallabiak

proiektu indartsua abiatu zuen, aurtan ezin bazen, datorren urtean mailako oilarrekin borrokatzen ibiltzeko helburuarekin. Baina datorren denboraldian beharko du; hamargarren kokatuta, goiko postuetatik urrun dagoelako oraingoz. Testuinguru horretan derbia jokatu dute domekan, 18:00etan, Zaldi-

Lehen itzulian Sasikoak 7-3 irabazi zuen. Juan Carlos Ca-

rreraren gidaritzapean, Sasikoa espero baino hobeto dabil. Martxorako batzea aurreikusten zuten puntu kopurua kasik batu dute dagoeneko. Euskal Ligan zebilen Abadiñoko Lagun desagertu ostean, han zebiltzan lau jokalarik Sasikoa taldera joan dira, eta horrek taldea hobetu egin duela onartu du Carrerak.

Mallabia Tabirako taldea, aldiz, ez dabil espero zitekeen mailan. Gainera, azken bost partiduetan

ezin izan dute jokatu titularretako askok. Horrek ere eragin du taldearen errendimenduan. Esaterako, joan zen asteburuan Tolosan jasotako porrotean (8-2 Laskorainen aurka) lehen taldeko bost jokalarik bakarrik izan ziren jokatzeko moduan. Horren arrazoia -lesioez gainera- abenduaren erdian Mallabiak eta Zarauzko Uxo taldeak jokatu zuten partiduan dago. Epaileak Mallabiko hainbat jokalarik egotzi zituen. Mallabiko jokalarien eta bi epaileetako baten arteko giroa asko nahastu zen partidua aurrera egin ahala. Epaileak kantxan jazo-takoekin eta entzundakoekin osatutako akta aztertu ondoren, Espainiako federazioak hainbat partidutako zigorra ezarri zien jokalarik batzuei. Kontua da epaile hori Sasikoa klubeko organigraman egona dela, nahiz eta gaur egun laguntzaile lez bakarrik diharduen. Arrazoiagaz edo gabe, horrelako gertaerek mesfidantza sortzen dute, eta Mallabikoek diote aktak ez duela zuzen jaso orduan gertatutakoa.

Kontuak kontu, entrenatzaile biek kirol arlora bideratu dute arreta. Derbi beroa aurreikusten dute, baina hiru puntu garrantzitsu jokoan egongo direlako bakarrik.

ADITUAREN TXOKOA



Mikel Aranguren

Futbola

Baloikada aitari

Gaurko gizartean, guraso askok seme-alabetan islatzen dituzte beraien frustrazioak, eurak heltzeko gai izan ez diren helmugara heltzea nahi dutelako. Egia esan, seme-alaba norbera baino hobea izatea helburutzat hartzea ez dago gaizki, baina hori behartuta lortu nahi izatea bai. Hori astebururo ikusi daiteke hainbat futbol zelaitan, bere burua entrenatzailatzat hartzen duen gurasorik ez baita falta.

Aitaren eta entrenatzailearen irudiak eta jokaerak eragin handia izango dute umeengan, eta jarraibide izango dira beraientzat. Hortaz, aitaren balioen transmisio falta (arrioarekiko, arbitroarekiko zein gainontzeko gurasoekiko errespetu falta) ikusita, semeak berdin jokatu du. Adibidez, bere taldekoekiko mespretxua jokalarik "txarrak" izateagatik, edota nahi beste jokatu ez izanagatik haserrealdiak ikus daitezke, beraiek onenak direla uste dutelako. Ondorioz, umeak direla ahaztu gabe, norberaren semea bere lagunekin gozatzen ikusi beharrean, irabazteko gosea duen ume bat izango dugu, non, noiz eta nola axola gabe.

Bizitzan dena ongi badoa, urrun iritsi daiteke umea; baina porrot txikienean, beraien arrakastaren goseagatik eta bere aitaren eragin negatiboagatik, jokalarik frustratu bihurtu daiteke eta futbolari gorroto izan diezaioke.

Azken finean, jokatzeko bukatuko duena benetan hori desio zuena izango da, aita, eta ez da horretaz ohartuko semeak baloia pasatu arte.

> SASKIBALOIA

Hamargarrenaren atarian geratu da Tabirako

Bederatzi garaipen lortu dituzte segidan

Noizbait heldu behar zuen porrotak, eta joan zen asteburuan heldu zen. Tabirako Baqué emakumeen taldeak bederatzi garaipen zeramatzan bata bestearen atzetik, eta hamargarrenaren atarian geratu ziren etxean Ger-

nikaren kontra galduta (56-63). Hala ere, sailkapeneko bigarren tokian diraute, eta liga bikaina osatzen ari dira. Orain, gizonen taldea ari da errekorren bila: bost garaipen daramatzate segidan, eta onenen artean daude.



Tabirako-Baqueko jokalariek joan zen asteburuan Durangon. Kepa Aginako.

ALBERDI HARATEGIA DURANGO

Askatasun etorbidea, 1 - Durango Tel: 946 817 658

Bertako okela · Aurretiaz prestatutako janariak

> **PALETA GOMA**

Bikote txapelidunaosatzen dute Praderak eta Etxanizek

Bikotea osatuta txapel bi irabazi dituzte denbora gutxian; Bizkaiko Txapelketakoa iazko abenduan eta Euskal Herrikoa iragan asteburuan

> **JOSEBA DERTEANO**

Elkar oso ondo hartzen duen bikotea osatzen dute Itsaso Praderak (Mallabia, 27 urte) eta Leire Etxanizek (Etxebarria, 23 urte). Iazko udan hasi ziren lehenengo elkarrekin jokatzeko, eta harrezkero txapel bi irabazi dituzte: Bizkaiko Txapelketa abenduan, eta klubaren arteko Euskal Herriko Txapelketa joan zen asteburuan. Azken horretan, Abadiñoko Tornosolo taldearen ordezkaria zen bikotea.

Praderak ibilbide luzea eta oparoa darama paleta goman. Etxaniz berriagoa da modalitate honetan eta paleta goman hasi aurretik esku pilotan eta futbolekin aritu izan da. Udako euskal zirkuituan hasi ziren elkarrekin jokatzeko, eta bikotea osatuta gustura dabilzala diote: "Ondo konpontzen gara eta partiduan elkarri laguntzen diogu: gure taktika zein den gogoratu, elkarri animoak eman... Pozik gabilzta elkarrekin", adierazi du Praderak.

Elkarrekin gustura ibiltzeaz gainera, eta emaitzak heltzen ari direla ikusita, datorren astean hasiko den Euskal Herria Irekian ere elkarrekin jokatu dute. Euren multzoko partidua

biak Lizarran eta Mallabian jokatu dituzte. Multzoan au-

Datorren astean hasiko den Euskal Herria Irekian ere elkarrekin jokatu dute

rrera egiteko aukerak ikusten dituzte. Hortik aurrera kanporaketa fasea hasiko da.

Joan zen asteburuan amaitutako Euskal Herriko Txapelketa partidua guztiak irabazi zituzten. Finala Etxarri-Aranatz (Nafarroa) jokatu zuten, Lizarrako Susana Muneta eta Ines Larrioren kontra, eta 30-20 irabazi zuten: "Atzelariak behe- egin zezakeela aurreikusitua gertatu zen, baina aurrera egin ahala aldea hartu genuen", gogoratu du Praderak.



Leire Etxaniz eta Itsaso Pradera marritzen, Abadiñoko Tornosolo trinketearen.

Bizkaiko Txapelketa Amaia Araiztegi eta Malen Lejona-goitia izan zituzten kontrario finalean, eta Etxanizen arabera espero baino errazago irabazi zuten. "Gu gure mailan arituginen eta arerioak, berriz, euren mailatik behera. Final estuagoa izango zela uste genuen".

> **23 neska palan, Mallabian**

Goi mailako paleta goma jokalaria izateaz gainera, Itsaso Praderak nesken paleta goma talde bateko entrenatzailea ere bada Mallabian. 2008an sortu zuten eta gaur egun 23 neska dabilzta: "Denak mallabitarrak dira eta sei eta hamazazpi urte artean dituzte. Martitzen, egun eta barikuetan batzen gara, 16:00etatik 18:00etara. Oso pozgarria da hainbeste neska paleta goman dabilzala ikustea".

> **AGENDA**> **FUTBOLA****OHOREZKO MAILA****Elorrio - Gurutzeta**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA**Zaldia - Mungia**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

Abadiño - San Ignacio

· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

LEHENENGO ERREGIONALA**Berriz - Ermua**

· Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**Iurretako - Basauritar emakume**

· Domekan, 18:00etan, Larrakozelaian.

> **ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA****Mallabia Tabirakolor - Sasikoa**

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarren.

Elorrioko Buskantza - Santurtzi

· Domekan, 12:00etan, Elorrian.

MAILA GORENA**Elorrioko Buskantza B - Presion Break**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

Sapuberri - Askartza Claret

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONALA**Abadiñoko Gaztetxe -****Elorrioko Buskantza C**

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA**Mendibeltz - Elorriko Txiki**

· Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

Gu Lagunak - Mallabia B

· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

> **SASKIBALOA****LEHENENGO MAILA (gizonak)****Tabirako Baqué - Deusto Loiola**

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

BIGARREN ERREGIONALA**Julza-Zaldia - Ugeraga**

· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarren.

Tabirako Baqué - Amets ederra

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

> **ESKUBALOA****LEHENENGO MAILA****Ibaizabal - Errotabarri**

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

> **ESKU PILOTA**

Eskualdeko herriek zortzi txapel irabazi dituzte

Durangaldeko finalak jokatu zituzten Lekeition

Durangaldeko Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten joan zen asteburuan Lekeitioko pilotalekuan. Iurretak, Atxondok, Elorriok eta Durangok bina txapel irabazi zituzten.

Elorrio kimu mailako final bietan nagusitu zen. Iurretak benjamin B mailakoa eta gazte mailakoa irabazi zituen. Azken

horretan uste baino errazago nagusitu zitzaion Lea Ibarrari (22-6). Atxondok benjamin A mailako eta haur kategoriako B mailako txapelak jantzi zituen. Azkenik, Durango nagusien mailan eta haur kategoriako A mailan nagusitu zen. Nagusietako finala Lea Ibarrari irabaziz partidua estu batean: 22-19.

> **TRINKETEA**

Modalitateko onenak lehian San Blas Sarian

Tartean Durangaldeko lau pilotari izango dira

Urtero legez, Hego eta Ipar Euskal Herriko trinketelari onenak batuko ditu San Blas Saria. Gaur, 19:00etan, eta astelehenean, 11:30ean, finalerdiak jokatu dituzte.

Gaur, Aspuru abadiñarrak Arabiourrutiagaz bikotea osatuta, Gandiaga eta San Sebastian izango ditu kontrario. Bigar-

ren partiduan Gonzalez berriztarak eta Amulet-ek Sorhuet eta Ugarteren aurka jokatu dute. Astelehenean Uriarte eta Antxia abadiñarrak Larralde eta Lazkanoren aurka ariko dira. Eta laugarren partiduan Gordon-Bilbao eta Ziarrusta-Etxabarria bikoteek jokatu dute.

clínicadental
b. unamunzaga

hortzklínika
e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara **ZABALIK**

muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango - Tel.: 946 819 951

momotx
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: **946 811 006**



SAN VALENTIN EGUNA

MENUA

Bieira tartufo kremarekin
eta urdaiazpiko xerrarekin

Onddoak, foie eta trufekin

Txingarretan erretako lupia,
oliba beltzez eginiko tintarekin
eta begihandi tagliatelleekin

Limoizko sorbetea txakolin eran

Antzinako eran erregositako buztana,
batata purearekin

Marrubiz eta txokolatez
eginiko gratena

Cava kopa

Ur minerala, freskagarriak eta garagardoa
Errioxako ardo zuria
Ardo gorria

PREZIOA: 35€ + BEZA

*musika
zuzenean*

Data
2014/02/14
Ordua
21:30

San Pedro, 12 · 48340 · Amorebieta - BIZKAIA
Tel.: 946 300 530 · www.hotelharrison.com · hotelharrison@hotelharrison.com

*Harrison hotelaren eskutik bi pertsonarentzako
afaria eta ostatua zozketatuko ditugu*


*Abadiñoko zein txirrindularik erabaki du
asteon erretiratzea?*

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta





**Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa**
**Mancomunidad
de la Merindad de Durango**



Unamunzaga, Zarrabeitia, Areitourtena eta Mandaluniz, emaitzak iragartzeko emandako prentsaurrekoan.

Durangaldeko airearen kalitatea onargarria da, eta urterik urte hobetzen jarraitzen du

Amankomunazgoak eta IK4-Azterlanek airearen kalitatearen inguruko azterketa berri bat garatu dute; industriak isurtzen duen kutsadura jaitsi egin dela ondorioztatu dute, eta emaitzen arabera trafikoa da eskualdeko kutsadura iturri nagusia

Durangaldeko airearen kalitatea onargarria da. Azken urtean azterketa berri bat egin du IK4-Azterlan ikerketa zentroak Amankomunazgoaren bultzadaz, eta emaitzak esku artean dauzkatela, hori izan da ondorio nagusia. Kalitatearen eskalaren arabera, onargarria da hemen arnasten dugun airea. Gainera, badago beste ondorio garrantzitsu bat ere mahai gainean: kalitate hori hobetzen doala. Izan ere, ez da airea aztertzen den lehenengo aldia.

Joan zen astean eman zituzten azterketaren emaitzak arduradunek. IK4-Azterlanetik Ander Areitourtena eta Lucia Unamunzaga egon ziren prentsaurrekoan, eta Amankomunazgoaren izenean Oskar Zarrabeitia presidentea eta Ismene

Mandaluniz teknikaria. 2006an egin zen azterketa bat lehenengoz, baina Durangon bakarrik. 2010ean eskualde osora zabaltu zuten lan hori, eta 2013an garrantutakoak ebaluazioa eta kontrola egiteko balio izan du.

Hobekuntza ekintza berriak ezartzeko helburuagaz, eskualdea osatzen duten udalerrietako gune sentikorretan trafikoa sortzen duen inpaktua ezagutu gura izan dute. Azterketa hau IK4-Azterlanen babes teknikoarekin egin da eta, bere ekipamendu aurreratua erabilita, airearen kalitatearen adierazleak eta ibilgailuen intentsitateak erlazionatzen dituen diagnosi bat garatu da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren menpeko hiru kontrol estazio ere badaude Durangaldean: Durangon, Elorrioren eta Abadiñon (Urkiolako mendatean). Horiek emandako informazioa ere garrantzitsua da interpretazio orokorra egiteko.

Industria, behera

2010ean lez, airearen kalitateak onargarria izaten jarraitzen du, nahiz eta, arduradunen arabera,

“azken urteetan ikusitako joera positiboa argi” nabari den. Eta eboluzio positibo horretan badauka zerikusia industriak. Izan ere, industriak isurtzen duen kutsadura jaitsi egin dela ondorioztatu dute. Amankomunazgoak, Behargintzaren bidez, hainbat enpresari kutsadura murrizteko urratsetan lagundu die.

Trafikoa, arrazoi nagusia

Gaur egun trafikoa da Durangaldean airearen kutsadura iturri nagusia. Azken urteetan ibilgailuen intentsitatea apur bat bajatu bada ere, oraindik kopuru handia da. Gainera, puntu askotan abiadura muga ez da errespetatzen, eta abiadura altuek kutsadura handitzen dute.

Adibide lez, Iurretako N-634 errepidean ibilgailuen %82k ez du muga errespetatzen. Izurtzan ere gauza bera gertatzen da Bi-623 errepidean; kasu horretan ibilgailuen %62 doa mugatik gorako abiaduran.

2010eko azterketan garrantzi berezia eman zioten industriari. Azkenengoan, oster, kutsadura sortzeko beste arrazoi batzuk

ere badaudela erakutsi gura izan dute.

Herritarrek, erantzule

Trafikoa gainera, herritarren ardura den beste kutsadura mota bat ere identifikatu dute, egur eta gasolio bidezko galdarek eragiten dutena. Garaiko, Izurtzako, Mañariko eta Otxandiko kontrol puntuetan, esaterako, partikula arinen kutsadura topatu dute, arratsalde eta gau partean igortzen dena. Horregatik uste dute etxebizitza pribatu batzuetako galdarek eragiten dutela kutsadura hori.

Beraz, herritarrek kutsadura arrazoi biren erantzule dira, eta horretaz kontzientziatzea gura dute arduradunek. Areitourtenaren arabera, “orain dela bost urte erraza zen industriari errua botatzea, baina herritarrok gara kutsadura iturri nagusi bien erantzuleak”. Mandalunizek ere adierazi zuen ardura horretaz jabetu behar direla herritarrek.

Airearen kalitatea hobetzen jarraitzeko pausoak ematen jarraituko dute Amankomunazgoak eta IK4-Azterlanek.

Etxebizitza pribatu batzuetako galdarek sortutako kutsadura identifikatu dute

2010ean bezala, airearen kalitateak onargarria izaten jarraitzen du

Airearen kalitatea hobetzeko, ekintza plan baten beharra dagoela uste dute

Trafikoa lasaitzea eta gutxi kutsatzen duten energien kontsumoa sustatzea aurreikusi dute, besteak beste



Airearen azterketaz informatu zuen IK4-Azterlanek Berdeago azokan.

Egoerak hobera egin badu ere, kutsadura atmosferikoa murrizteko neurriak beharrezkoak dira, Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen dituen baliok betetzeko. Aurrerantzean ekintza berriak garatu beharko direla aurreikusi dute IK4-Azterlaneko kideek, errepide batzuetako trafiko intentsitatea,

iragarritako obrak eta etxeetako isuriak kontuan hartuta. Izan ere, emaitzak ebaluatuta, airea hobetzen jarraitzeko zenbait gomendio eman dituzte ikerketa erakundeok. Mugikortasun jasangarriagoa bultzatzea eta etxeetatik datozen partikulak gutxitzea izango dute helburu. Lana no-

Airea hobetzen jarraitzeko zenbait gomendio eman dituzte ikerketa erakundeok

rabide bitan egitea aholkatu du IK4-Azterlanek, hau da, herri-guneetako trafikoa lasaitzea eta gutxi kutsatzen duten energien kontsumoa sustatzea.

Berrizko adibidea
Ondorioek diotenez, ezinbestekoa da abiadura muga errespetatzen ez duten ibilbailuen kopu-

rua murriztea. Horren harira, Berrizko kasua ipini du adibide Ander Areitourtena IK4-Azterlaneko teknikariak: biribilgune berriak trafikoa lasaitu du, eta muga errespetatzen ez dutenen kopuruak behera egin du. “Biribilgune berriak ekarri duen eragin positiboa nabaria da”. Antzeko ekintzak batuko dituen mugikortasun plan bat beharko da, beraz. Arazo handienak herri-guneek kanpoko errepideetan sortzen dira, eta horregatik Aldundiaren zein Eusko Jaurlaritzaren esku ere badago egoerari buelta ematea. Azterketaren emaitzak erakunde biei helarazi dizkie Amankomunazgoak.

Galdarak aldatzea
Egur eta gasolio bidez funtzionatzen duten galdaren kasuan, baserri-guneetan sentsibilizazio kanpainak garatzea garrantzitsua dela uste dute. Berogailuaren eta ur beroaren sistemak eredu jasangarriagoetara aldatzea izango litzateke helburua. Durangalde osorako ekintza plan bateratu bat diseinatzea proposatu du IK4-Azterlanek, Amankomunazgoa eta udalak elkartuta garatu dezaten.

Ezinbestekoa da abiadura muga errespetatzen ez duten ibilgailuen kopurua murriztea


Herririk herri neurtu zuten airera jaurtitako kutsadura

2013an fase bitan banatuta egin zuten kalitatearen azterketa

Urtebeteko lana dago atzean. IK4-Azterlanen ikerketa fase bitan egin zen. Faseetako bat neguaren eta udaberriaren artean izan zen, eta bestea uda sasoian. Metodologia, aire ka-

litatearen adierazle nagusien (PM_x, NO_x, CO, SO₂ eta O₃) eta parametro meteorologikoen (haizearen abiadura eta norabidea, tenperatura eta prezipitazioak, adibidez) denbora

errealeko neurketetan oinarritu zen. Hamaika udalerritan ezarri zituzten neurgailuak, eta udal batzuen eskariz, herri batzuetan bi puntutan egin zen gas eta partikulen kontrola.



- Abadiño:** Lehenengo fasean, Trañabarren kalean ipini zuten. Bigarrenean, Alfredo Baeschlin kalean, BI-636 errepidearen ondoan.
- Atxondo:** Jauregi kalean, gunetikorrenean.
- Berriz:** N-634 errepidean, trafikoaren eragina neurtzeko.
- Durango:** Lehenengo, Antso Estegiz kalean, 2010eko azterketaren harira. Kaleak trafiko intentsitate baxua daukala ikusi, eta, bigarren fasean, Frai Juan Zumarraga kalera eroan zen neurgailua.
- Elorrio:** Trafikoarengatik eta fundizioengatik, San Pio X kalean ezarri zuten.
- Garai:** Herrigunean, udaletxe ondoan ipini zuten estazioa, trafikoak sortutako eta etxeetako emisioak neurtzeko.
- Iurreta:** N-634 errepidearen eragina ikusteko, Ibarretxe kultur etxearen alboan ipini zuten.
- Izurtza:** Herrigunean ipini zuten estazioa, trafikoak eta material partikulatuak aztertzeko.
- Mañaria:** Izurtzako egoera bera zuten, eta, horregatik, eliza ondoan ipini zuten neurgailua.
- Otxandio:** Trafikoa aztertzeko, herriguneko sarbide nagusi bietan ipini zuten faseka.
- Zaldibar:** N-634 errepide alboan ezarri zuten lehenengo fasean, trafikoa neurtzeko, eta Euskal Herria kalean ipini zuten bigarrenean, trafikoarengatik eta industriarengatik.

Inmobiliariak

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

**Inmobiliaria**
del Duranguesado
Askatasun etorb., 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

DURANGO

- Logela bakarreko, 2 logelako eta 3 logelako etxebizitzak alokairuan.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO. ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen hasi gara. Logela 2 eta logela bakarrekoak. Trastelekuarekin. 140.000tik aurrera.
- LEKEITIO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.
- DURANGO: Apartamentua. Logela 2, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berrizteko. 114.000.
- DURANGO. ERDIALDEAN: Logela 2, komun 1 eta sukalde amerikarra guztiz jantzia. Etxebizitza berria eta guztiz jantzia.
- ABADIÑO. ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra egongelarekin, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- DURANGO. ASK. ETORB.: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- DURANGO. FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, komun 2 eta egongela. Garajea eta ganbara.
- DURANGO. ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua. Prezioa zehazteke.
- DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- ATXONDO. 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.
- ZALDIBAR. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

- BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Landa ederra eta sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- MATIENA-ABADIÑO. 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.
- IURRETA. 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide ona.
- OLETA-OTXANDIO. 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.
- ABADIÑO. Bi familiarentzako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Aurrez aurreko informazioa.
- DURANGO. Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.
- ZORNOTZA- EUBA. 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati. Bakoitzean familiarentzako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.
- ZORNOTZA- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila zoragarria. Dena lurzati berean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- DURANGO. Eraikin atxikia. Guztiz jantzia. Erdi berria. Estreinatzeko.
- BERRIZ – MURGOITIO. Nekazal turismorako baserri zoragarria. Ikuspegi ederrak.
- BERRIZ- EITUA. Aurrealdean arkua duen baserri ederra. Bi familiako etxebizitza egiteko aukera.
- ETXEBARRIA – ITURRETA. 5 has baino gehiago duen baserri ikusgarria. Lur zati bakarrean eta baserria inguratzen.
- MUXIKA. Berroja auzoa. 2 baserri salgai. 8 hektareetako lursaila inguruan. Biak batera eta banatuta erosteko aukera.

TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekoak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxo.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. Ganbara.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- UNDATORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- ABADIÑO-ARLOZABAL: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komun 2. Terraza handia.
